

Anti-iritzia

Mezu bat jaso nuen, *Kaixo Irati*, goiburu pertsonalizatuarekin. (Irati *maitea*, idazten da alemanez mezu baten goiburuan). Abisu batekin hasten zen: “Aldez aurretik, mezu luzea da hau”, eta berehala argitzen zen jende askori bidalitako elkartasun eskaria zela. *Movimiento* zinemakoek jende jatorra behar zuten tea eta galletak banatzen laguntzeko, gai polemiko baten inguruan jendeak esateko zuena entzuteko prestutasunaz gain, elkarrizketa giro bat sortzeko asmoz. Jarraian, emanaldi baten inguruan sortutako egoera “korapilatsu eta aldi berean absurdoa” esplikatzeko zen.

Aspalditik ezagutzen dut Alemaniako zinemarik zaharrena kudeatzen duen bikotea; haietako batekin ikasi nuen nik 35mm-ko filmak proiektatzen. Gainera, birritan egin dugu bertan Berlingo euskal zinemaldia, eta beraz, ez nintzen izan solidaritatea erakusteko agendan tartea egin zien euskaldun bakarra.

Irakurle bizkorren batek pentsatuko zuen errefuxiatuen aldeko eta eskuin muturrekoen arteko liskararekin lotura izango duela auziak. Giza eskubideen aldekoen eta haien errefusatzailen arteko talkarekin. Mugak zabaldu edo ixtearen arteko gatazka. Krisiari iraultza baten potentziala ikusten diotenak edo Mendebaldearen islamizazioaren aurkariak. Ez al da, bada, hori gai totala? Bai, bada. Eta *Movimentoko*ak tea eta galletak banatzen?

Ez, egoerak puntu absurdo bat zuela gogoratuko dugu. Laburpen batek eskatzen duen bezala, hainbat xehetasun bazter utziz: Israelgo zinemagile batek bere dokumentala estreinatzeko alokatu zuen areto handia. *Shitsstorma* sarean, deiak zinemara, deiak sake-lako pertsonaletara. Esanez: “Zinema antisemita bat zarete emanaldia ber-



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

tan behera uzten ez baduzue”. Deitzen zutenek ez zuten filma ikusia eta ez zuten ikusi nahi. Israelen okupazio politikarekiko kritikoa baita dokumentaleko protagonista, astero palestinarekin batera manifestatzen den gaztea. Gainera zuzendariak Israelen kontrako boikotera deitzen duen talde aktibista (BDS) gonbidatu zuen estreinaldira (nahiz eta zinemako bi jabeak boikotaren kontrakoak izan). Zinemakoek ez zieten mehatxuei men egin, manifestazioa deitu zuten *Stop BDS- baldintzarik gabeko solidaritatea Israelekin* lemapean. Baina nortzuk, galdetuko du irakurle bizkorrak? Adi: Anti-alemaniarrek bezala ezagutzen dira, Antifaxista Sionistak dute izen ofiziala eta ezkerren talde pro-israelarra dira. Ez zuten te edo galletarik nahi, nahiz eta hauek *koscher* izan (juduen sinesmenaren arabera jaki garbia). *Koscher?*, betaurreko beltzen atzean ezkataturiko anti-alemaniar alemaniar peto batek, orduan bai ezetz! Baina ordurako kontramanifaren kontrako manifik (FOR Palestine taldeak espontaneoki deituak) harri-patu gintuen beste aldetik eta erdian galleta *koscherrez* betetako plater bati eusten egotea estrategia ergel askia bihurtu zitzaigun.

Ez dakit noizbait saiatu izan zaretzen Euskal Herriko gatazka politikoa guretik at esplikatzeko. Eta nolako emaitzak lortu izan dituzuen. Barruan dagoenak menperatzen ditu terminoak, argudioak, indar-harremanak. Kanpotik ikusita oso korapilatsua eta absurdoa bihurtzen da dena. Ez dakit zuek, ni behintzat, gai polemiko gehienetan kanpotar sentitzen naiz. Gero eta gehiago, gainera. Oso gauza gutxi dira, eta oso funtsezkoak, argi ditudanak. Ez dakit zer egiten dudan Iritzia atalean idazten. ■